


## Gure Ondaria zaindu guran

# KAROBIXAK

**F**an dan hillian ekinddako saillari jarraituaz, oñatiko patrimonio historikuan geratu xakun hainbat gauza azterketan hasiko gara. Eta gaurkuan karobixak aittatuko dittugu.

Karoixa, karuixa edo, pittin bat borobildutta, karobixa, izenak garbi erakusten doskun lez, karia egitteko hobi edo zulo bat izaten zan; hau da, kareharrixa erre eta karia sortzeko labe bat. Udazken-negu aldera ixuketan ziran karobixak, garixak erein ondoren. Hartarako egur ugari bihar izaten zan: pago-txaria, abararak eta anporrak. Lehenengo anporrez beteten zan labiaren behekaldia, gañian ondo tolestautako kareharri pusketak ipiñi, karobixari sua emun eta, goriketan zanian, abarraz gau ta egun irauan eragitten xakon suari zortzi bat egunian. Abararak sartu ahal izateko labiak beheko partian ataka edo ate txiki bat eukitten eben. Karobixak tamaiño askotakuak izaten ziran, baiña batzuk altuera haundi samarra hartzen ebein: hiru metrotik gora.

Oñatin azkenengo gerra osterarte ezagutu zan zeregin hau eta, geldittu diran aztarranak agerketan doskuenez, oso zabaldua egon zan auzorik gehixenetan. Karia igeltseruak ezezik, baserritarrak be ebalten ebein. Igeltseruak letxadia egin eta paretak zuriketako; mortero moduko batian nahasketako be bai. Baserritarrak, barriz, lurrak ontzeko botaten ebein soruetan, hau da, ongarri moduan. Abonu eran XVIII. mendetik aurrera, batez be, ebal ei zan.



Lamiategi baserriko karobiaren ataka. Garagaltza auzoan.

Karobi-arrasto ugari dakogula esan dogu oraintxe. Egixa da, baiña batzuk nahikua osorik eta beste batzuk ziharo hondatuta. Azken urtiotan Joxe Angel Idigoras eta Imanol Biainek jardun daue oñatiko karobixen katatolagaitte-lanetan eta mordoska politta topau dauzela esan geinke. Dana dala, oraindiok gehixago egongo dirala pentsitten dogu eta, baten batek horrein barria emungo baleusku, benetan eskertuko geunskio.

Hona hemen, auzorik auzo, geldiketan diran karobi batzuk:

Zubillagan: Iparregieta (Eskorta eta Apaiko erreken bittartian); Ikaron (Alkorta errekan gora); Karoizar (hau Alkorta baserri inguruan).

Garibain: Dolaetxe (baserritik oso hurrian); Iraberdartza harrua (izen bereko

erreka onduan, Dolaetxe baiño gorago); Goroskibar-garaikua (Koixkarko eliza inguruan).

Garagaltzan: Zubitxueta (Lamiategiko errota onduan); Elizate zuritxueta (Idigomenditik Olate bittartian); Idigoras (Iruatz baserri inguruan:2).

Uribarrin: Urriagain (jatetxetik hurrian); Urtzelai (baserri inguruan).

Araotzen: Madiña (Madiña-zubieta inguruan); Andarto (?) (Andarto zabal inguruan); eta Luela errekan gora beste bat.

Berezaon: Agerre (baserrixa baiño aurreratxua; txikitxua, baiña egoera onian).

Murgixan: Juanikogarrena (Izen bereko baserri inguruan).

Olabarrietan: Auntzola; karoitxueta (Aldaberako bidian:3); Aiastui zabal; etxeberri baserri ingurukoak (2); Basazabal.

Larraña: Eltzikorta (Antzuolakomugan); Azabaleta 9 korostondo errekiaren iturburu aldiari); Sakontxo (erreka horretantxe, baiña beherago).

Eta azkenil Olapotokua, jakifa: oñatiar eta udalekuetako kanpotar batzuen lanari eskerrak orain dela gutxi konpondu dan karobi politta eta Olapototik Mojasororako bidian daguea. Olapotok hau konpondu dan moduan, beste batzuk be itxuratu leikiela uste dogu.

Badira Oñatin, gaifera, karobixa ixuketan dakixenak. Interesgarrixa litzake, benetan, konpondutako karobi horreittan karia egitten ikusiko bageu, hartara gazte eta umiak antxiñako lanbide horren barri izan deixen. ■

JERARDO ELORTZA  
eta JOXE ANGEL IDIGORAS

## Galizia taberna

Zumalakarregi, 22  
Tfnoa. 78 22 08

*Espezialitateak :*  
*Urdaiazpiko iberikoa*  
*Bokadiloak*  
*Pintxoak*  
*Plater konbinatuak*

OÑATI



Lazarraga, 3  
Tel. 71 61 37

Aita Madina, z/g.  
Tel. 71 61 17